

Beroa, hotza... eta lurrina

Joseba Ossa Alzibar

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
1996



Zumaiko Udala

*emskar
txanpan*



Beroa, hotza... eta lurrina

Joseba Ossa Alzibar

Julene Azpeitia 9. ipuin lehiaketa

1996

Zumaiako onenaren saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Joseba Ossa Alzibar (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

BEROA

*Ez nau izutzen negu hurbilak
uda betezko beroan
dakidalako irauten duela
orainak ere geroan*

Kaixo Mari Luz:

Sinestea kostatzen bazaizu ere, Pragako kafetegi batean nauzu, kafe beroa hartzen, goxo-goxo, jendearen ibilera lasaiari begira, eta haien begietan zeureak ikusten ditut. Zer moduz doakizu bizitza? Zure alboan igarotako egun paregabeak ditut gogoan, Nikaraguako eguzkiak goxatu zizkigun egun bero haiek, Estelí-ko kaleetan igarotako gau beroak, musika eta mota guztietako saltsetan busti eta freskatutako uneak...

Agian zuen arrakasta izugarriaz horditurik zinen. Ziur aski zure bizitzako unerik zoriontsuenak biziak zenituen jadanik, baina ondorengoak hutsaren hurrengo utzi zituen aurreko gertakizunak ene begien aurrean. Ez dakit gau hartaz ni adina oroituko zaren. Ez dakit zenbat horrelako egin dituzun. Nik, bederen, ez dut inoiz ahaztuko. Hain naturalki hurbildu zintzaizkidan... Hain izan zen dena goxoa eta leuna...

Ba al dakizu noiz eta non oroitu nintzen bereziki eta biziki gau hartaz? Duela egun pare bat, Kongresu batera etorri berria nintzelarik, hemen, Pragako hiri zaharra den Staré Mesto-ko plaza batean uda-amaierako ilunabar bero eta argitsuan paseatzen ari nintzela, eliza zahar batetik halako doinu ederra entzun nuen: Bach-en Brandenburg-eko kontzertuak ziren. Txekia berriko Orkestra berria jotzen ari zen, ostegunetako entsegu orokorrean, kontzertu egunetako jantzi estu eta formal horiek gabe, publiko ñoñorik gabe, gogoz eta lasai jotzen, disfrutatzen, Brandenburg-eko lehen bi kontzertuak jo zituzten, eta nire barnemuineko zuntz guztiak dantzan ipini, barru-barruraino sartzen baitziren musika haren bibrazio, doinu, kolore eta sentsazio guztiak.

Lehen Allegro-ak festarako prestakizuna zirudien, konpas arinak jendearen pauso arinera gonbidatuko balu bezala, lau haizetatik etorritako zaldun eta dontzeilei eginiko deia izango bailitzan. Gu bion patuak elkarrarazi zituen Managuako bilera jendetsu hartan festarako deia egin zutenean bezala sentiarazi zidan: arin, grabitaterik gabe,

dantzari, jostalari, pozik, ilusioz, kezka eta adinik gabe biziko bagina bezala. Eta Karibeko musika zeharo desberdina bazen ere, sentsazio berberak sortarazten zizkidan, egunerokotasunaren errutinatik urrun, Allegro-aren alegrantziak pozturik. Aperitibo ederra izan zen, urrunetik etorritako festaz gozatu ahal izateko.

Gero Adagio mantsoa jo zuten, eta saltarin ibilitako oinak lurrera jaitsi beharrean, hegaka hasi zitzaizkidan. Tristezia punttu bat izan arren biziki maite nituen aire leun haiek, zuk festara nirekin joan nahi zenuela esan zenidanean bezala. Izan ere, nola imajinatu zu, hain emakume ederra izanik, nirekin, lodikote honekin joan nahiko zenukeenik festara. Hunkitu ninduzun, bai, hunkitu. Eta nola, gainera. Lehen eta bigarren biolinen mugimendu harmonikoek zure ibileraren erritmoak ekarri zizkidaten gogora, festa aurreko egunen itxarote malenkoniatsuaren joan-etorriak, lakuko urak haize bareko egunetan egin dituen uhinak...

Hurrengo bigarren Allegro-ari ekin zioten. Hala zen festa Estelí-ko auzoan, doinuaren, dantzen eta diskurtso ponposoen magiaz inguratutik. Zu ere han zinen, klarineteen ahotsaz mintzatzen, tronpen indarrez ni zuregana erakartzen, harpa-joleak haren sokak beregana esku-joko bitxiez erakartzen dituen bezala, latinook duzen xarma berezi horrekin, berotasun amaigabe eta susmagarri horrekin. Elizako apaingarri ugariak ere dantzan hasiko zirela pentsatzen nuen. Pentsa: santuak, umeak, aingeruak... denak harrizko hormetatik jaitsi eta mugitzen hasiko balira, dantzatzeari ekingo baliote...

Eta horretan geundela Menuetto-a etorri zen txikieria omen diren guztiak txikitasun direla esatera, eta txikitasun harro, gainera, harro eta duin, harro eta beren txikitasunean handi. Musika-tresnarik zaratatsuenak isildu egin ziren, xirula xaloari, klarineteari eta lehen biolinei lekua utziz. Orduantxe heldu zenidan lehenengo aldiz eskutik, zure hatz puntekin nireak ukituz, besoan gora eta behera ibiliz, ume jostalarien antzera. Zirrargarria zen. Zirrargarria zinen. Erakargarri zeunden. Haur jostalariak ginen.

Baina bat-batean Trio I jotzen hasi ziren, eta niregan gau hartako unerik txarrena berpiztu zuten. Noizbait zure maitale izandako David hurbildu zitzaigun, gure jokoez ohartu bezain laster, harro, bat-batean zutitu zen biolin-jole bakarlariaren antzera, ttente-ttente, arranditsu, bestean gaintetik zegoelakoan, gure xirula-klarinete bikote gozo eta eztaia hautsi nahian... Edo zu haren —eta ez beste inorena— zinela pentsatuz... Ez dakit bera jeloskor ote zegoen (orduaz ezetz esan zenidan), baina ni behintzat, bai. Zu maite zintudala konturatu baino lehen jeloskor nintzen. Are gehiago, orduantxe ohartu nintzen zutaz maitemintzen hasia nintzela, zelo mingarri haiei esker. Baina... Nola? Ni zutaz maitemindu? Ez zen posible! Gure haurtzaroko eskema guztiak hankaz gora ipini eta zure emakumetasunaz erakarria sentitu? Buruak ezetz eta bihotzak baietz. Baina bai, egia zen, Trio labur hark pentsarazi zidan ez ote genuen gau hartan hirurok batera ibili beharko, inor jokoz kanpo ez geratzearen. Ez, ordea. Ni ez nengoen prest. Denak baino nahiago inor ez. Zerri hura tartean sartzea baino nahiago nukeen neure bakardadean geratu. Hura ere ez zen irtenbide egokia, ez horixe, eta zure maisutasun diplomatikoari esker libratu ginen Daviden presentzi distorsionatzaileaz.

Menuetto D.C. eta Polacca etorri ziren gero, gure zorionerako, ez baitzen inor etorri gure dantza-saio bero eta hurbila hondatzera. Gainera, uste izan nuen Polacca nolabait Polka-ren antzekoa zela, mugimendu zorrotz eta zeharo neurtuak zituela, baina ez, uste baino gozoagoa zen, zure besoen laztanak bezala, zure bularrak nirearen kontra ipintzean areagotzen ari zen berotasuna bezalaxe.

Bigarren Menuetto D.C.-az ez nintzen ohartu, aurrekoaren doinu eta pentsamenduetan murgildurik bainerraien... Harik eta Trio II jotzen hasi ziren arte, nire pentsamendu gozoetatik bortizki atera zidaten arte. Berrero hirukotearen mehatxua inguruan. Berrero norbait zetorren gure bakea haustera. Cecilia zuen izena, eta

disimulurik gabe jo zuen muinera: "hori ala ni, ez dago besterik". Ez nuen uste hain denbora laburrean birritan gerta zitekeenik, baina halaxe jazo zen eta neuk hartu nuen erabakia: "utz gaitzazu bakean!. Oroitzen al zara haren aurpegiaz? Uste baino errazagoa izan zen, barruan neraman txita oilar bihurtu zen, sagua lehoi, morroia jaun, bisitari arrotza nagusi. Hirukotearen arriskua berehala uxatu genuen. Oraindik zalantzak ditut zuk egingo zenukeenari buruz, baina jadanik ez zait axola. Egin zenuena dakit, eta nahikoa dut. Trioak hasi orduko jo zituen bere azken konpasak, azken doinu ahulak, gero eta urrunago galtzen ziren oihartzun tristeak...

Eta berriro biok bakarrik, joko lizunetan sartzeko irrikan, Garaipen handia ospatzen ari zen jendeaz gainezka zegoen plazan, eguzkirik gabeko berotasun leuna dastatzen, azken Menuetto D.C. alaiaren uhinetan gora eta beheara. Egia esan orduan ez zeunden niretzako bakarrik. Zure pentsamenduetan zeure herria ikus nezakeen argi eta garbi, baina horrek ez zidan artean jeloskor sentiarazi. Neurea zinen, bat-batean, ustekabean. Ez beste inorena. Borrokatu gabeko bataila irabazia nuen, jokatu gabeko xake-partidua neurea zen, erregina menperatua nuen.

Eta esploratzaile bihurtu zinen... Baina itxaron apur bat, itxaron. Hor tartean orkestrak atsedenaldea hartu baitu. Lehen kontzertua amaitu da, eta bigarrena jotzeko prestatu baino lehen une batez bakean utzi dituzte sokak, tinbalak, kontrapuntuko fagotak, tronboi sakona, tronpak eta gainontzekoak. Gure gau hartan bezala, hemen ere iristeke dago onena.

Laster prestatu dira bigarren kontzertuko Allegro biziari ekiteko, zu ere ni alegratzeko bizkor asko prestatu zinen bezala. Vivaldiren Udaberriari darion bizitasun bera dario musikari, zuri zerizun ausardia berbera. Nola abiatu, bestela, zig-zag eginik nire izterretan gora? Nola, bestela, musukatu eta laztandu halako atrebentziaz hainbeste begiradapean hain ikuslego begiluzearen aurrean? Orkestra-zuzendariak perkusio-joleari azkarregi joateagatik egindako errieta baino askoz handiagoa zirudien zuen talde-buruak zuri egindakoak, hain atrebentzia lotsagabeagatik. Hala ere, ordea, aurrera jarraitu eta esploratzaile bihurtu zinen musikarien zaindariaren izena zeraman hodei ilun hura gure zerutik desagertu zenean. Beste begi jakin-nahi guztiak, berriz, xirimiri ttantta hobengabeak besterik ez ziren zuretzat, maliziarik gabeko umeen jakin-minez so zerraiten puntu txuri-beltz mugikorak.

Eta hala ere ez zenuen ezezkorik esan handik alde egin genezan eskatu nizunean. Aitzitik, eskua hartu, muxu bat eman, eta han abiatu ginen, zure etxerantz, musika, festa eta Allegro-aren algarak atzean utziz. Eta pixkana-pixkana sartu ginen Andante leun eta gozoan, orkestrak bezala, zarata handirik gabe, pauso mantso eta gozoz, geldi eta sentikorrez. Ni dardarka nindoan, "vibrato" zirrargarri eta leherkorak egiten dituen biolin-jolearen pare. Zure etxeko atarian sartu orduko areago joan nahi izan nuen, baina "oraindik ez, laztana" erantzun zenidan. Eskaileretan gora igo, "inor ez" esan auzolagun kuxkuxeroei ni nor nintzen galdetzen zizuten bakoitzean, eta hor ginen laster, zure etxean, edozertarako prest.

Andantearen erritmoan sartu zen sukaldeko leiho gainean zintzilik zegoen kaiolako txori kantaria ere, Bach-en xirula ezitia. Ni, berriz, biolontxelo bihurtu nintzen zure besoetan, dutxa hartu ondoren musika-tresharen funda bailitzan kendu zenidanean soinean neraman bata, musikarik ederrena jotzeko prest. Pragako biolontxelo-joleak ere ez nindukeen hain eztiki hartuko. Zure sabel eta bular beroak nire bizkar biluziarekin bat eginik, ni zure haur besoetakoa bihurtuz. Zein musika zenuen buruan beso luze horiek sorbalda gaintetik aurrerantz irristatu zirenean? Zer zebilkizun gogoan esku maitakorrez nire sabelean sinfoniaren zatirik gozoena jo zenuenean? Zertan ari zinen nire bularrak hatz beroez inguratu zenituenean? Zer egin zenuen ni modu horretan horditzeko? Begira, begira biolontxelo-jolearen aurpegia! Sentimenduz du josia, sentipenez betea, baina hala eta guztiz ere urrun da zureari zerion lamaz, urrun da bioi zerigun zorientasunaz.

Eta musikaren plazerak motzak geratu zaizkit zurekin ohean izandakoen alboan, goitik beherako eta behetik gorako bidaiari eman zenizkidan atsegin uneen ondoan, ileetako sustraietan hatz puntez ematen zenidan gozatuaren aldamenen... Izarak goxoki bihurtu zenituen bion gorputzetako izerdiak xurgatzeko erabiliz mikatz zeuden arren. Esku bat nahikoa zenuen nire ipurdi-masailen artean sartu eta leizerik sakonenean barna urrutiegi joan gabe niri deskribaezina den atsegina erakusteko, mundu berriak ezagutarazteko, bide berriak urratzen laguntzeko, ahaztu ezinezko abentura-jolasei ekiteko, haurren aurreiritzi-gabeziari beldurra galtzeko.

Ez dakit... ez dakit zu ni adina oroitu zaren. Ez dakit berriro gerta ote daitekeen; berriro gertatzea komeni ote den. Agian lehenengo aldiaren xarma galduko luke, edo agian ez.

Musika ahazturik nuen, baina hor darrai andante geldoak, gozoak, guk ordu betez jarraitu genuen bezala, inora iristeko presarik gabe, inondik ateratzeko irrikarik gabe, zure logelako pertsianak gaizki itxita egon arren inork ikusiko ote gintuen beldurrik gabe, txoriaren xirula doinuaz lagundurik, ohearen alde batetik bestera kulunkatuz, ile luzeak elkarrekin trentzatuz eta askatuz, eskuekin eta ezpainekin maitasun jokoetan amildurik. Batzuetan pentsatu izan dut antzeko egoeran egongo zela ziurrenik Albinoni bere Adagio bikaina sortu zuenean, oso baitira desberdinak amodioaren fruituak. Haziak berdinak daitezke izan, baina zein lurretan ereiten diren, hor dago kakoa; hor erabakitzen da fruitua jaio ala ez jaio, ume, sinfonia ala artelan izan.

Bai, musikak hor zerraien, elizako txoko eta bazter guztiak betetzen, bihotz bat baino gehiago alaituz, zauriren bat goxatuz, leunduz... baina kanpora ateratzea erabaki nuen, Andantearen zapora gaindiezinarekin geratu ahal izateko, jarraian zetorren Allegro Assai sarkorraren doinu ederrek ez zezaten uholdeak bezala eraman hain denbora luzez posoa utzitako gozamen andantea. Eta gau hartako oroimenez gozatuz igaro nuen Staré Mestoko gau ibiltari hura, zu eta zure ohe-jolasak bihotzetik atera ezinik, loak hartu ezinik, ilargia lagun.

Eta horrelaxe agurtu nahi zaitut, oroimen ederren berotasunean, Brasilgo kafe gozoaren usainean, gurea hasi baino egin ez denaren itxaropenean, hurrengo gabonetan hemen izango zaitudalakoan.

Bihotz-bihotzez...

HOTZA

*Ez nau izutzen baratzatikan
azken loreak biltzeak
muga guztien arrazoi bila arnas gabe ibiltzeak*

Zazpi urte beranduago...

Kaixo Mari Luz:

Zenbat denbora zure berririk gabe... Ahaztu egin al nauzu, ala? Azken urteotan ia egunero urduri ipini izan naiz buzoian zer ote zegoen begiratzean. Zure eskutitzen zain nengoen, baina bankuetxeko gutunak eta publizitate gorrotagarri horiek besterik ez nituen aurkitzen... Zer moduz zaude? Zer berri Estelí aldean?

Ni Parisen nago, bakar-bakarrik eta hotzak akabatzen. Kanpoan elurra ari du, elur hotza, eta blai eginda nago. Gaua da, gau hotza, eta ez dakit non amaituko dudan amesgaiztoko odisea hau.

Senarra eta bi seme-alabak etxean utzi eta egun batzuk igarotzera etorri naiz hona, ikasle garaiko lagunak bisitatuz arnasberritzeko asmoz. Ah, barkatu! Lehenik berri eta azalpen batzuk zor dizkizut, zeren agian ez zenuen jakingo: ezkondu egin nintzen, duela bost urte, zuk ezagutzen ez duzun gizon batekin. Mikel izena du. Bi seme-alaba ditugu eta bizitza osoa haurren eta lanaren inguruan biraka dabil azken urteotan. Zaharrenak, Ainarak, 4 urte egin ditu, eta Ikerrek 2. Eskola polita dute, Esteli-koa baino askoz handiagoa, baina baita hotzagoa ere. Mikel Eusko Jaurlearitzan ari da lanean, Hezkuntza saileko azpiegitura-teknikari gisa, eta ez da gizon txarra, ez, baina zer esango dizut... Lanak eta nagusiarekin ondo konpontzeak gehiago kezkatzen dute nik baino. Umeekin asko jolasten du, baina nirekin ez. Berak ez daki ezer gu bion arteko harremanei buruz. Ez naiz sekulan txintik esatera ausartu. Ez dakit, baina beldurra ematen dit nola erreakziona dezakeen pentsatze hutsak. Zurekin gertatu bezala, hasierako berotasun eta goxotasun haiek joanak dira Mikelekin ere. Ez dakit nora, ezta itzuliko ote diren ere.

Nik, arkeologo kongresua berriro aitzakiatzat hartu dut egun batzuk etxetik alde egiteko, ikasle garaiko jendea topatzeko asmoz, baina oraingoz alferrik. Nicole, Claude, Piotr, Setev, Margörzata, Nick... denak etxetik aldatu dira eta ez dute arrastorik utzi. Pentsio batean hartu behar izan dut ostatu, kongresua ez delako oraindik hasi. Hiru egun daramat hemen, galduta, bakar-bakarrik, euritan eta elurretan ibiltzen, lehen dibertigarri zitzaizkidan metro eta autobusetan noraezean galduta bezala.

Gaueko hamabi t'erdia dira. Pentsioko giltzak galdu egin ditut, eta hamarrak aldera, lotara joateko asmoz hara hurbildu naizenean kaleko atea itxita zegoen. Izugarriko danbategoak jo arren ez zuen inork erantzuten. Ia ordu betez egon naiz ate ondoan, norbait etortzeko zain, leihotara begira, ea norbait kasualitatez balkoira ateratzen zen, baina alferrik. Hotzaz eta elurraz aspertuta, Eiffel dorrerantz joan naiz, norbaiten laguntzaren bila. Baina han poliziak besterik ez zeuden, parkea zaintzen, etxerik gabeko eskaleak bankuetatik bidaltzen, mila izarreko hotel paregabe hori husten. Eta ez didate ezertan lagundu. Pentsioko telefonoa bilatzen laguntzeko eskatu diedanean "c'est trop tarde pour téléphoner" esan didate, begietara begiratu gabe. Hau miseria! Hotzak akabatzen, beste pentsioren batera joateko dirurik ez, eta bueltaka hasi naiz, ibiliaren ibiliaz berotzeko asmoz.

Halako batean, taberna ilun xamar baten ondoan nintzelarik, ba al dakizu zer entzun dudan? Billie Holiday, gure Billie-ren kanta eder haiek, nostalgia goxo hura. Barrura sartu, eta blai-blai eginda egon arren ez dit inork toallarik edo arropa lehorrik eskaini. Te beroa eskatu, baina horrelakorik ez dutela erantzun didate, zakar. Kafea hartzera errenditu behar izan dut. Komunera joan eta negar egin dut, ene bakardade jasanezinagatik negar, jendearen hoztasunagatik negar. Alferrikako malkoak bailiran errieta egin diot neure buruari, "Ez hadi hain tuntuna izan, emakume!" esanez, negar egiteko eskubiderik izango ez banu bezala. Baina kafea hoztu egingo zela-eta, aurpegia garbitu, ileak apaindu, eta ezer gertatu ez balitz bezala itzuli naiz neure mahaira. Kontsuelo bakarra Billie-ren ahotsa dut orain, haren "Cheek to cheek" deliziosa. Oroitzen al zara nola duela sei urte, Gabonetan ni bisitatzera etorri zinenean, Gasteizko alde zaharreko teteria maitagarri hartara eramanez zintudan? Eta han entzun genuen musika? Bai, Billie Holiday zen, eta behin eta berriro errepikatzen zuten kanta? "Cheek to cheek". Nik ere maite dut arrantza egitera joatea errekarra, nik ere maite dut mendi tontorretara igotzea, baina Billiek bezala, nik ere nahiago nuen zure ondoan dantza egitea masaila masailaren kontra, bat eginik.

Zuk, ordea, hotz utzi zenidan. Ez omen zenuen dantza egiteko apetarik. Ez nizun nirekin egoteko gogorik sumatu. Buruan beste norbait ote zeneukan beldur nintzen.

Agian egia da oinazearen aurrean geure burua engainatu behar izaten dugula. Gogoan al duzu zer aurpegi ipini zenidan teterian anis infusioa edaten ari ginela Billie-k "Say it isn't so" abestu zuenean?

*Say it isn't so,
everyone is saying you don't love me
everyone I know whispers you are growing tired of me
say it isn't so,
People say you found somebody new
and that it won't be long before you leave me,
say it isn't true.
Say that everything is still O.K.*

Esazu hori ez dela horrela
Jende guztiak dio ez nauzula maite
nire ezagun guztiek diote nitaz nekatzen ari zarela
Esazu hori ez dela horrela
Jendeak esaten du beste norbait aurkitu duzula
eta luze baino lehen utziko nauzula
Esazu ez dela egia
Esazu oraindik dena ondo doala.

Ni konbentzituta nengoen gure artean ere gauza bera gertatu zela, galdua zintudala betirako. Hitz gutxiko orduak eta orduak hotz-hotzean igaro genituen, ia ezer esan gabe, mahaira begira, jendeari begira, isiltasun salakorrean. Etxerako bidean, Santa Maria kantoitik Kutxileria aldera maldan beheara gindoazela, kale hotzetan gauez ibiltzeak ematen duen astinduraz argitu zenidan dena: Hauteskundeetako porrota. Violetak irabazi. Zuek galdu. Eta zuekin batera herriak. Horixe omen zen dena, eta ez beste inor sartu izana.

Ezin nuen ulertu nola izan zitekeen hain kezagarria eta zapuzgarria zuretzat porrot hura. Guregan ere izan zuen eraginik, noski, baina ezin nuen pentsatu amodio kontuetan hainbeste nahas zitekeenik gai hura. Areago, frustrazio horrek desira erotikoa pitzaraziko zizulakoan nengoen, konpentsazio gisa-edo.

Hotz utzi zenidan, Karibe aldean bizitako guztia bat-batean erraietatik moztu izan balidate bezala. Billie "*They can't take that away from me*" abesten ari zela nik gauza bera pentsatu nuen: "Sandinistek ezin didate hori kendu, ezin didate zu kendu". Askotan esan zenidan bizitza ia osoa haien alde eman arren bihotza beti aske izango zela, muga guztiak gainditzen zituela, izotz guztiak urtu, gorrotoa maitasun bihurtu. Orduan, zer gertatu zitzaizun? Bihotza ostu zizuten, ala? Nirea, bederen, izoztuta geratu zen Eguberrietako bisita hotz hartan. Orduan ere elurra ari zuen mara-mara Gasteizko kaleetan, orain Parisen ari duen bezala, eta elurrak —ederra, garbia, hunkigarria izan arren— kolore guztiak jaten dituen moduan, zuenak —duina, noblea eta zintzoa izan arren— sentimendu eta sentsazio guztiak jan zizkidan, ebatsi.

"Body and soul" abesti malenkoniatsuari ekin dio orain Billiek: "My days have gone so lonely..." Baita nireak ere. Zerbezaz gainezka dauden gazte batzuek kanta tristeegia

dela esan diote tabernariari, eta kentzeko, martxa gehiago duen beste zerbait ipintzeko. Niri begiratu dit tabernariak, eta ezer galdetu ez badit ere, nik buruarekin ezetz esan diot, ez kentzeko. Abestiaren tristezia kontsolagarria zait niri. Body and Soul, gorputza eta arima, biak ditut izoztuta, biak bakarti.

Non lo egin beharko ote dudan arrastorik gabe, lo egiterik izango ote dudan ere jakin gabe... taberna hau ixten ote dute, ala gau guztian zabalik ote, hiritar deslaidak hartzeko prest?. "A quel heure fermez vous?" galdetu diot, gau ilunaren beldur. Eta irribarre malizios batez erantzun dit, ezetz esanez. Baina zer esan nahi du "ez" horrek, galdetu diot keinu batez, sorbaldak igoz eta bekozkoa estutuz. "A bon entendeur salut" erantzun besteak. Ulertzaile onari hitz gutti nahikoa izango zaio, baina niri ez, eta berriro errepikatu diot keinu bera. "Après la pluie, le beau temps" esan du gazte batek, barraren punta batetik, eta beldur sentitzen hasi naiz. Hainbeste gizonen artean emakume bakarra naiz, eta egoera tamalean, gainera. Presa erraza naizela pentsa dezake batek baino gehiagok. Hobe dut isiltzea. Hobe noiz ixten duten jakin gabe Billie-ren abestiak entzuten jarraitzea, Gasteizko teteria xarmangarri hartan egin genuen bezala.

Leihoko gortina eskuz zabaldu, eta kale ilunari begira jarri naiz, gizonen bizkarra emanez, elur maluta hotzen erorketa geldoari so. Billie-ren abestien notak dirudite maluta horiek, leun-leun erortzen direnean, minik eman gabe. Hotzak dira, ordea, eta nazkatuta nago hotzaz.

Teterian esan zenidan maitasuna, eguzkia bezala, joan eta etorri egiten dela, eta ez dela inoiz eguzkiaren errua. Eguzkia etengabe ari zaigu beroa eta argia bidaltzen. Batzuetan Lurra da hura ikustea eragozten diguna, egunero bere bueltatxo eman behar izaten duelako. Bestetan hodeiak tartekatzen omen zaizkigu eta hori ere ez dago gure menpe, ezta eguzkiaren esku ere. Ondo da, egia da. Eguzkia hor egongo da beti, baina aspaldi joan zen zurea, eta ez dut berriro etortzen ikusi, ez gauez ezta egunez ere, ez neguan ezta udan ere.

Eta Billie-ren abestiak izugarri maite zenituela ere esan zenidan, haren musika magikoa zela, eta haren hitzak, berriz, paregabeak. Ez omen dago hari itzal egingo dion jazz abeslaririk. Ez omen dio inbidiarik Louis Armstrong berari, ez omen da txiki geratzen haren ondoan. Baina ez dakit zer pentsatu. Une honetan "Love is here to stay" kantatzen ari zaigu: "It's very clear, our love is here to stay", baina ez dakit hain garbi dagoen.

Nik, badaezpada, hemendik alde egingo dut. Hotzari aurre egiteko gau osoa oinez ibili behar badut ere, alde egingo dut, eskaleekin metro geltokian edo zubi azpian amaitzen badut ere, alde egingo dut, oinazeari ihes egiteko ron gogorrari eman behar badiot ere, alde egingo dut. Eta gau honetan nire hotzetik aterako nauen maitalerik aurkitzen badut, harekin joango naiz, ohean Billie-ren abestiak entzutera, ez baitago hotzaren ondorengo berotasuna eta haserrearen ondorengo maitasuna bezalakorik.

Bero izan nahiko lukeen agur hotz bat zuri...

LURRINA

P.D: Ez dizut esan, baina oraindik garaiz zaude hona etortzeko. Hala egiten baduzu, eta hasierako lama eta gar hura berreskuratzen badituzu, elurra lurrin bihurtuko dugu kale hotz eta ilun hauetan gure gorputz biluziak elkartuz. Eta lurrinak begi guztietatik salbu ipiniko gaituen gortina lodia egingo du gure inguruan, maitasuna askatasun osoan egin dezagun. Zeuk ikusi... Agur.